# Zinemaldiak irribarreak oparituko ditu Buenafuente eta Berto Romerorekin

IRATXE MARTÍNEZ

Aktore ospetxu batek noizbait esan zuen: "Barre egin gabeko egunak, egun galduak dira". Aktore hori Charles Chaplin zen, eta seguru oso pozik egongo litzateke gaurko galako aurkezleak Berto Romero eta Andreu Buenafuente umoristak direla jakitean.

Zinemaldiaren 72. edizioari hasiera ofiziala emango dio gaur gaueko inaugurazio-galak, barre egiteko gogoz. Hori da zeremonia-maisuek duten gogoa: barre egiteko eta barre eragiteko gogoa dute. Entsegu orokorraren aurreko saioan, nabari da dena prest zeukatela gaur arratsaldean egingo den Donostia Zinemaldiaren 72. edizioaren inaugurazio-galarako.

Zinemaldiak joera du inaugurazio galetan umorea lantzeko eta irribarreak marrazteko. Iaz, Eva Hache eta Gorka Otxoa aurkezleak izan ziren, eta umore onez ekin zioten lanari, Bob Popen gidoia defendatzeko gogotsu, biak ala biak.

Aurten, Bi komiko katalanek Bárbara Goenagarekin batera aurkeztuko dute zeremonia. Inaugurazio-galan, baita ere, Audrey Diwanen *Emmanuelle* filmaren mundu-estreinaldiaren aurretik, interpreteen grebaren ondorioz Javier Bardemek iaz jaso ezin izan zuen Donostia Saria jasoko du; halaber, Yorgos Lanthimosen *Poor things* filmari FIPRESCI Sari Nagusia entregatuko zaio, eta Epaimahai Ofiziala aurkeztuko dute.

*Spoiler*ik egin gabe, kontatu dute gaurko galan ez direla faltako sorpresak, musika emanaldiak eta omenaldia. Eta umoreari buruz galdetzean, Romerok dio: "Geure buruaz barre egingo dugu, eta oinarri horretatik abiatuta, jendearekin barre egingo dugu". Bi zeremonia-maisuek luzaroan lan egin dute gaurko gala perfektua izan dadin. "Egia esan, gurekin dena gaizki atera daiteke", txantxetan dio Bertok. Baina Buenafuentek ez du berdina pensatzen: "Zinemaldiak ibilbide luzea du eta hementxe lanean daudenak profesionalak dira. Dena primeran aterako da". Andreu Buenafuentek Zinemaldiari adierazi zionez, "Donostiako nire oroitzapenak onak baino ez dira. Eta hori asko da. Horregatik, inaugurazio-galan parte hartzeko eskatu zidatenean, pentsatu nuen eskerrak emateko hainbeste arrazoi nituela, ezen hobe nuela pertsonalki joan eta eskerrok adieraztea. Eta, gainera, nire adiskide Bertorekin izango naiz. Zer atera liteke gaizki? Ezer ez".

Galdera da: Ausartuko al dira euskaraz hitz egiten? Ezin dugu aurreratu, erantzuna gaurko galan ikusiko dugu. Hilabete askoan lan egin da gaur zinemazaleenak harritu eta entretenitzea espero duen gala bat sortzeko, eta zuzenean jarraitu ahal izango da Espainiako Telebistaren La 2 katean, ETB1en, eitb.eus-en, Zinemaldiaren webgunean eta iaz bezala, TikTok Zinemaldiaren kontuaren bidez.



IÑAKI LUIS FAJARDO

## An opening gala presented by a Catalan comedy duo.

The opening gala of the 72nd San Sebastian Festival will be directed and presented tonight by the Catalan comedians, Andreu Buenafuente and Berto Romero, who will be accompanied at the Kursaal by the actress Bárbara Goenaga in a ceremony that kicks off at 9 PM.
During the opening gala, which will precede the world premiere of *Emmanuelle*, by Audrey Diwan, Javier Bardem will receive the Donostia Award he was unable to pick up last year due to the actors' strike, while the FIPRESCI Grand Prix will go to Yorgos Lanthimos's *Poor Things* and the members of the Official Jury will be introduced.
Buenafuente: "I have nothing but good memories of San Sebastian. And that's saying something. So, when they invited me to participate in the opening gala I thought that I had so much to be grateful for that I'd better go there and tell them personally. And with my pal Berto to boot".

---

**EMMANUELLE** INAUGURACIÓN

# Emmanuelle en el siglo XXI

QUIM CASAS

Audrey Diwan, ganadora del León de Oro veneciano en 2021 con su anterior película, El acontecimiento, según la novela de Annie Ernaux, e integrante del jurado del SSIFF en ese mismo año, ha emprendido una aventura atractiva y arriesgada al mismo tiempo: restituir, desde las perspectivas de género del siglo XXI, un personaje que fue icono del cine erótico, *soft* y aburguesado de la década de los setenta. Ni más ni menos que Emmanuelle, personaje creado por la escritora Emmanuelle Arsan y que dio pie a la película homónima de 1974 protagonizada por Sylvia Kristel. El éxito de aquel film cosificado, dio para un montón demasiado generoso de secuelas, bien interpretadas por la misma Kristel, bien por Laura Gemser en la franquicia paralela iniciada con *Emmanuelle negra*. Nada de todo aquello queda –no puede quedar hoy– en la *Emmanuelle* de Diwan, que no se basa tanto en la novela de Arsan como en el personaje en cuestión.

Hay la secuencia de sexo en el lavabo de un avión en vuelo, y relaciones lésbicas, y una búsqueda del deseo perdido, pero el Hong Kong que filma Diwan nada tiene que ver con el Bangkok de la primera película, ni ninguna de las decisiones que toma la protagonista están en función de las aspiraciones y deseos masculinos. Esta es otra his-



toria con un mismo personaje. Un film que le da la vuelta por completo a la imaginería del denominado antes cine para adultos, porque el feminismo, el #Me Too y el sentido común han hecho prevalecer otras necesidades, búsquedas e identidades.

Lujosa y delicada al mismo tiempo, nada esteticista ni sofisticada porque sí, la película de Diwan plantea otras cuestiones sobre la sexualidad femenina y las múltiples caras del deseo. Noémie Merlant da vida a una nueva Emmanuelle, secundada por Naomi Watts y dos actores surgidos de la televisión estadounidense más exitosa del presente, Will Sharpe (*The White Lotus*) y Jamie Campbell Bower (*Strange Things*)